

Euskal langileria

Deia, 1977-07-27.

Azken berrogei urte horietan munduko langileriaren aintzindaritza, protagonismoa, asko igo da.

Eta euskal munduan ere bai.

Politikaren lagungarri da zalantzarik gabe.

Gure herriak, beste herri batzuetan gertatu izan den gisan, bi arazo izan ditu bultzagarri: abertzaletasuna eta sindikalgintza. Lehenengoz sortu zena, Bizkaiko mehatz lanetan XIX. gizaldian, etorkinekin eta horien eraginez sortu zen; sindikalgintza hau politika espainolaren eraginak markatuta geratu da geroztik. Honen alboan, beranduxeago, sindikalgintza abertzalea sortu zen.

Bitarte honetan, azken berrogei urte horietan, langileriak izan ditu, politika sailean gertatu den bezala, hainbat gora-behera.

Askatasun ezak sortzen dituenak.

Gaur, sindikalgintza espainolak badu laguntza handi bat: sortzetik berea duen tradizioaz datorkion etorkina, inmigrantea. Etorkinak errazago aurkitzen du hor lekua. Abertzale diren taldeak ere ari dira sindikalgintzan lanean, eta legezko denez, etorkinei deiak egin dizkiete; itxaropen handiak jarri ere egin dira honetan.

Sindikalgintza arrotz hori ez da bat. Badira horien arteko joera ezberdinak. Alderdi eta sindikatu diren talde batzuk ari dira berea dela uste duten parroki horretatik batera eta bestera tiraka. Nolanahi, ordea, maila honetan zatitzen diren sindikal-joerek ere arrotzen jokabidea dute guztiek eta honek ez digu euskaldunoi batere laguntzen. Bestalde, abertzale den sindikalgintzak ere badirudi bere artekoak eta erdi badituela, eta honek, bai, kalteak egiten dizkiola gure herritasunaz osatzen den sindikalgintzari. Eta onak, badakigu nori.

Zergatik?

Espaini mailan funtzionatzen duen sindikalgintzak badu, berez, eta batez ere etorkinen artean, halako indar ezagunak duen irabaz-deigarri bat; bai arrotzentzat, eta baita euskaldun batzuentzat ere. Eta, aitzitik, euskal sindikalgintzaren irudia, imajina, gaur oraindik osatzekoa dagoenez, ikusten dituen zatiketa eta elkar-erasotzeak deitu baino uxatu gehiago egiten ditu, bai etorkina, noski, baina baita etxeakoak bertakoak ere.

Inork ez du galtzaileekin joan nahi, batez ere lanera eta irabazira.

Eta orain osatzen den sindikalgintzak garrantzi handia izango du gure herrian. Beste herri guzietan bezala. Baina gure herriak kezkatzen gaitu gaur eta hemen.

Hau da gure zoria.

Hara zergatik ahal den lasterren euskal sindikalgintza indartsu eta zentzudun bat, langileriari deigarri izango zaion bat, behar-beharrezkoa dugun.